



## BILBO-BASURTU ESI

2240/2016 EBAZPENA, urriaren 17koa, Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentearena, Nora PATUS ETXEZARRETA andreari Bilbo-Basurtu ESIko Miribillako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuaren funtzioak esleitzeko dena.

1192/2016 Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen Bilbo-Basurtu ESIko Miribillako Lehen Mailako Arretako Unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Nora PATUS ETXEZARRETA andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: Bilbo-Basurtu ESIko Miribillako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion funtzioak esleitzea pertsona horri.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

### EBATZI DUT

Lehena.- Nora PATUS ETXEZARRETA andreari esleitzea Bilbo-Basurtu ESIko Miribillako Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion funtzioak.

Bigarrena.- Nora PATUS ETXEZARRETA andreak kudeaketa- eta asistentzia- lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki Bilbo-Basurtu ESIko gerenteararen ardurapean. Bai Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak garatu bitartean bai hauek amaitzean, titulartasunari eutsiko dio bere kategorian dagokion plazan, eta hari lotutako oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.- Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.- Interesdunak, funtzio horiek betetzen dituen bitartean, ardura bereziko osagarria kobratuko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Dekretu Legeak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta bere zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean ezarrita daude.


Bosgarrena.- Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2016/10/17.

Seigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2016ko urriaren 17an

Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentea



Osakidetza  
BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTE  
DIRECTORA GERENTE  
MICHOL GONZÁLEZ TORRES

MICHOL GONZÁLEZ TORRES